



Euskal Soziolinguistika Institutua *Sortzen*

**“Euskal Herriko gazetxoen hizkuntz egoera,  
hizkuntzaren erabilerarako behar diren  
gizarte baldintzetatik aztertuta”**

**2003-03-22, Tolosa**

Iñaki Martínez de Luna



Euskal Soziolinguistika Institutua *Sortzen*


---

## **Saio honen helburua bikoitza da:**


- **Euskal Herriko gaztetxoek hizkuntz egoeraren berri eman.**
- **Egoera horren zergatietan sakondu.**
- **Hizkuntzaren erabilerarako behar diren gizarte baldintzen ereduak aurkeztu.**

# HIZKUNTZA BIZIAREN EUSKARRIAK

(edo erabileran eragiten duten faktoreak)



# EUSKARAREN GAITASUNAREN BILAKAERA ADIN TARTEKA (1996/99)



**1. Taula: NORBANAKO MAILAN GAILENTZEN DIREN EUSKARAREN INDARGUNEAK, AHULEZIAK, AUKERAK ETA MEHATXUAK EUSKAL HERRIKO GAZTETXOENGAN**

**INDARGUNEAK**

**Gaitasuna:**

- EAE –gehien bat- eta Nafarroako euskarazko gaitasunaren gorakada.
- EAEko euskararen ondorengotaratzeko sendoa irakaskuntzan.

**Motibazioa:**

- EAEn euskararekiko interes handia.
- Euskara euskal kulturaren muina izatearen sinismen hedatua Iparraldean eta EAEn.

**AHULEZIAK**

**Gaitasuna:**

- Iparraldeko euskarazko gaitasunaren gainbehera.
- Guraso euskaldun guztiek ez diete euren seme-alabei euskara irakasten eta gurasoetako bat soilik euskalduna denean euskararen ondorengotaratzeko oso ahula.
- Irakaskuntzaren bidezko euskararen ondorengotaratzeko Nafarroan eta Iparraldean.
- Askok etxeko/herriko aldakiak edo euskara batua ez jakitea.

**Motibazioa:**

- Nafarroan eta Iparraldean euskararekiko interes apala.
- *Motibazio izanarazleen* ahulezia, Nafarroan.
- Ez da agertzen euskararen aldeko *arrakasta motibaziorik*.
- Motibazio sinbolikoak soilik ez du indar nahikorik errealitatea iraularazteko.

**AUKERAK**

**Motibazioa:**

- EAE eta Nafarroan antzematen den euskararen premia.
- Euskara gehienbat etorkizunari lotzen zaio EAEn eta Nafarroan.
- Euskal Herri osoan dagoen euskara baztertzearren kontrako jarrera.
- Lehen-hizkuntza euskara soilik dutenek euren seme-alabei hizkuntza horretan egiteko adierazten duten jarrera.

**MEHATXUAK**


**Gaitasuna:**

- Euskaldunen hizkuntz gaitasun desorekatua (erdiak hobeto daki erdara euskara baino). (ahulezia ere izan liteke)


**Motibazioa:**

- Iparraldean ez da euskararekiko *trukeordaineko motibaziorik* antzematen.
- Iparraldean euskararen irudia iraganari dago lotua gehienbat.
- Lehen-hizkuntza erdara duten euskaldunen heren batek euren seme-alabei euskaraz egiteari uko egiten diote.

# EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA 1989-2001



# EUSKARA ERABILERAREN BILAKAERA ADINAREN ARABERA 1989-1997



# **GAITASUNAREN BILAKAERA (EAE)**

(13-14 urteko neska-mutilengan)

	<b>1999</b>	<b>1993</b>	<b>Aldea</b>
<b>Euskaldunak</b>	<b>62</b>	<b>49</b>	<b>+13</b>
<b>Erdaldunak</b>	<b>38</b>	<b>51</b>	<b>-13</b>
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	



# EUSKARAREN ERABILERAREN

## BILAKAERA (EAE) (13-14 urteko neska-mutilengan)

<b>Beti egiten dute euskaraz:</b>	<b>1999</b>	<b>1993</b>	<b>Aldea</b>
Aitarekin	23	22	+1
Amarekin	20	21	-1
<b>Neba-arrebekin</b>	<b>28</b>	<b>25</b>	<b>+3</b>
<b>Koadrila-kideekin</b>	<b>23</b>	<b>15</b>	<b>+8</b>
<b>Ikaskideekin, ikasgelan</b>	<b>28</b>	<b>20</b>	<b>+8</b>
<b>Ikaskideekin, gelaz kanpo</b>	<b>21</b>	<b>13</b>	<b>+8</b>

## ZER DUGU GOGOETA-GAI?


“Zabaldu dira euskarazko eskolak: orain hogeitabost urte inork gutxi amets egingo ez zukeen neurrian zabaldu ere, hasierako ikas-mailei dagokionez bederen. Ikasi ere ikasten ari dira euskolaume gehienak (...) euskaraz irakurtzen, idazten eta hitz egiten: ebaluazio-lan sendoenek ez dute, ikaste-maila horretaz, zalantza-bide handirik uzten. Gure bazterrak ez dirudi ordea, inondik ere, maila bereaz euskal mintzoaz jazten ari direnik. Espero zenetik benetan lortzen ari dena tarte handia, osin sakona, antzematen da aitzitik. Euskaltzale-jendea kezkatzen hasi da: zer ari da gure euskal irakaskuntzarekin gertatzen?”

“Horrelakorik ez zen espero. Irakasle bat baino gehiago, konkretuki, galdezka hasi da: zertan huts egiten du irakas-sistemak?; konponbiderik ba al du arazoak?; baiezkotan, nondik datorke konponbidea?”

**Euskaren erabilerak astiro-astiro egiten du gora, eta horrek kezka pizten du.**

# JOSE MARÍA SÁNCHEZ CARRIÓN “TXEPETX”-EN IKAS PROZESUEN TEORIAK

Hizkuntza ikasteko eragiten duten faktoreak eta prozesuak:




Prozesu kulturalen ideia hauek azpimarratzen dira:

- **Motibazioaren garrantzia:** hizkuntza baten egotera edo berau ikastera eramaten duten arrazoi, nahi eta interesak.
- **Nahikotasun maila:** motibazioak eta gaitasunak nahikotasuna mailara iritsi behar dute erabilerara igarotzeko.
- **Motibazioa dinamikoa da:** ezagutza eta erabilera aldatzen diren heinean, aldatuko da.

# HIZKUNTZA BIZIAREN EUSKARRIAK

(edo erabileran eragiten duten faktoreak)



**2. Taula: HIZTUN KOMUNITATEAN GAILENTZEN DIREN EUSKARAREN INDARGUNEAK, AHULEZIAK, AUKERAK ETA MEHATXUAK EUSKAL HERRIKO GAZTETXOENGAN**

**INDARGUNEAK**

**AHULEZIAK**

**Harreman sareak:**

- EAEko gaztetxo euskaldunen anai-arrebekiko, ikaskideekiko eta lagunarteko euskarazko harreman-sareak hedatu dira 1993tik 1999ra bitartean (gainontzeko lurraldeez halako informaziorik ez dugu).

**Baldintza demolinguistikoak:**

- Gaztetxo euskaldun askok familiako eta kaleko giroak erdaldunak dituzte nagusiki, zonalde euskaldun petokoek salbu.

**Harreman sareak:**

- Gaztetxo euskaldunen heren batek ez du inongo harreman-sare euskaldunik eguneroko harremanetan.
- Eguneroko harreman sare euskaldunak soilik dituzten gazteak oso gutxi dira.

**AUKERAK**

**MEHATXUAK**


**Baldintza demolinguistikoak:**

- Gune (egoera) euskaldunak sortzeko ahaleginak eta ekimenak eraginkorrak direla frogatu da.


**Harreman sareak:**

- Euskara familia eta ikasketen bidez ondorengotaratzea bai, baina euskaldun horiek euskaraz bilduko dituzten guneak (egoerak) zonalde euskaldunenetan bakarrik sortzea.

# NESKA-MUTIKOEN HIZKUNTZ IBILBIDEAK: GAITASUNA



# NESKA-MUTIKOEN HIZKUNTZ IBILBIDEAK: ERABILERA



**ESKOLAN OHO-KO NESKA-MUTIKOAK EUSKARAZ  
MURGILDURIK DAUDEN DENBORA, DUTEN ESNA  
DENBORAREKIKO**

	EREDUAK		
	A	B	D
DENBORAREN %	3	8	14



## ASTEGUNETAN 8 URTEKO NESKA-MUTILEN ESNA DENBORAREN BANAKETA


NON	DENBORAREN %
IKASTETXEAN	24
BIDAIETAN	3
ETXEAN	31
TELEBISTA IKUSTEN	19
ASTI-DENBORA: LAGUNAK, KIROLA, JOLASAK...	18
BESTE IKASKETAK	5

## IKASTETXEETAKO KIROL-EKINTZETAN ERABILITAKO HIZKUNTZA

EUSKARAREN ERABILERA	EUSKAL HERRIA		
	A EREDUA	B EREDUA	D EREDUA
Beti euskaraz	1	12	44
Euskaraz erdaraz baino gehiago	1	11	13
Bi hizkuntzetan berdin	2	8	9
Erdaraz euskaraz baino gehiago	6	20	11
Beti erdaraz	89	48	22
GUZTIRA	%100	%100	%100

# HIZKUNTZA BIZIAREN EUSKARRIAK

(edo erabileran eragiten duten faktoreak)




**3. Taula: GIZARTE EGITURAN GAILENTZEN DIREN EUSKARAREN INDARGUNEAK, AHULEZIAK, AUKERAK ETA MEHATXUAK EUSKAL HERRIKO GAZTETXOENGAN**

INDARGUNEAK	AHULEZIAK
<p><b>Gizarte egitura:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ EAEn, gehien bat, irakaskuntzako hainbat egoeratan euskara erakundetuta dago.</li> </ul> <p><b>Gizarte ospea:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Hiriko gazte euskaldun mota bati atxikitzen zaion irudi jatorra.</li> </ul>	<p><b>Gizarte egitura:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Esparru gehienetan euskara ez dago erakundetuta eta 'normaltzat' erdara bakarrik jotzen da.</li> </ul> <p><b>Gizarte ospea:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Euskara bigarren mailako hizkuntzatzat jotzen da.</li> <li>▪ Aitzindariak diren jardueretan gaztetxoek ez dituzte euskararen lekutzat jotzen.</li> <li>▪ Gazte euskaldunari <i>caseroen</i> irudi zaharkituari lotzen zaio.</li> </ul>
AUKERAK	MEHATXUAK
<p><b>Gizarte egitura:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Euskara aintzakotzat hartzeko eta erabilera normaltzeko konpromisoa erakunde mota guztietara hedatzea.</li> </ul> <p><b>Gizarte ospea:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Hiriko gazte euskaldun eta jator irudi hori hedatu.</li> </ul>	<p><b>Gizarte egitura:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Gizarte egitura erdalduna euskaldundu ezean, euskararen berreskurapena eragotz daiteke.</li> </ul> <p><b>Gizarte ospea:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Euskara politizatu edo marjinaltasunarekin nahastu.</li> </ul>

- Donostia euskalduna nahiko luke (herriak bezala), baina...

**GAZTE DONOSTIARREN HIZKUNTZAREKIKO HARREMANAK:  
KALEKO ERABILERAREN AURREKO SENTIPENAK (II)**



**GAZTE DONOSTIARRREN HIZKUNTZAREKIKO HARREMANAK:  
KALEKO ERABILERAREN AURREKO SENTIPENAK (III)**

Euskaltzaleak

Euskararen nortasun balioa azpimarratzen du

Herri nortasuna

Erabilerarik eza barkatzen du...

Hizkuntza  
komunitaterik  
eza

...baldin eta euskararekiko maitasuna eta  
errespetua badago

Atxikimendu  
komunitatea

Euskararen onarpen sentimentala eta ideologikoa, **baina ez  
bizitza hizkuntza bezala = Euskararen normalkuntzarik ote?**

# **Mikel Zalbidek Fishman-engandik hartua: (BAT Soziolinguistika aldizkaria 42. Zk.)**

***“Zein dira gure mintzajardunaren hizkuntza-aukerak determinatzen edo bideratzen duten ordain sariak?”***

- ***Social rewards*** edo gizartekotze-sariak.
- ***Fiscal rewards*** edo diru-sariak.
- ***Political rewards*** edo politikazko-ordainsariak.
- **Erliziozko ordainsariak.**



**IKUSPUNTU ETA JARDUN  
OROKORRAREN PREMIA**






**Ikastetxean**

**+**

**Ikastetxearen  
inguruan**

**+**

**Gizartean**



Euskal hiztunen komunitatea sortu/indartu  
=  
Euskararen normalkuntza

# KONPONBIDE BILA EDO EGOERA NOLA ITZULARAZI

"Zein esparruk du, gure hizkuntza biziberritu ahal izateko, garrantzi berezia? Bada galdera honi, mundu zabalean gertatzen denaz ongi jabeturik, erantzun pisuzkoa emana dionik. Horien artekoa da Fishman irakaslea. Gogora dezagun, laburbilduz, bere ikusmoldea: famili giroan, auzo mailan eta eskolaumeen gizarte-bizitzako elkargiroan saiatu beharra dago neska-mutil horien euskarazko mintzajarduna indartu, hedatu eta aberastu nahi bada."

# HIZKUNTZA BIZIAREN EUSKARRIAK

(edo erabileran eragiten duten faktoreak)

